


BERRIKUNTZAREN ETA GOBERNANTZA  
ONAREN EUROPAR ZIGILUARI BURUZKO  
BENCHMARKA

# ELoGE



## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

VITORIA-GASTEIZ		
BIZTANLERIA (2021)	AZALERA (Ha)	BIZTANLEKO BPGa: € (2018)
253.093	27.630	36.268

# ÍNDICE

<b>1.</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>1</b>
<b>2.</b>	<b>EMAITZAK</b> .....	<b>3</b>
2.1.	Gainerako parte-hartzaileekiko konparaziozko emaitzak.....	4
2.2.	Emaitzen eta inkesten kontrastea .....	5
<b>3.</b>	<b>HOBEKUNTZA PLANA</b> .....	<b>6</b>
<b>4.</b>	<b>ELOGE VS. ODS</b> .....	<b>7</b>
<b>5.</b>	<b>KONKLUSIOA</b> .....	<b>8</b>
<b>6.</b>	<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>9</b>
6.1.	I ERANSKINA: BERRIKUNTZAREN ETA GOBERNANTZA ONAREN EUOPAR ZIGILUARI BURUZKO BENCHMARKA.....	9
6.2.	II ERANSKINA: EGINDAKO INKESTAK.....	22
6.3.	III ERANSKINA: EGINDAKO INKESTEN EMAITZAK.....	25

## 1. SARRERA

2017an, EUDEL Eskualde Plataformaren bidez, programa pilotua egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoko bederatzi Udal Europako Kontseiluak maila lokalean garatutako Berrikuntzarako eta Gobernantza Onerako Estrategiari atxikitzeko.

Estrategia hori ELOGE Gobernantzaren arloko Europako Bikaintasun Zigilua Euskadiko errealitateari egokituta baloratu zen, eta balorazio hori Gobernantza Onaren 12 printzipioren autoebaluazioaren bidez egin zen Udal bakoitzean 97 adierazle erabiliz.

2018ko ehen esperientzia pilotuaren ondoren, 2020an, hainbat edizio egin dira, eta txosten honetan aztergai duguna, 2021ean. Hala, lau edizio hauetan zehar, Benchmark-en aldaketak egin dira, udalen autoebaluazio-lana errazteko, indarrean dagoen araudira egokitzeko, gizarte-errealitateetara kontuan izateko eta COVID-19ren erronka berrietara egokitzeko, bai eta adierazleren baten erantzunak doitzeko ere.

Azken batean, **gobernantzaren arloko bikaintasuna** ez da estatikoa. Autoebaluazioan kontuan hartu behar dira **erronka berriak eta horiekin lotutako herritarren eskakizunak**, autoebaluazioak bikaintasuna eta bikantatzen ez dena bereizten jarrai dezan.

Hala, egindako aldaketek tresna abangoardian eta erabilgarri mantentzen dute edozein udalerritarako, aurreko edizioren batean parte hartu badu ere.

Herritarrei eta ordezkari politikoei ere egin zaizkie inkestak (Benchmark honen parte dira, ikus **II. Eranskina**), emaitzak kontrastatzeko eta, horrela, egon daitezkeen desberdintasunak murrizteko behar diren neurriei heltzeko.

Aplikaturako metodologia honako hau izan da:

- a) *Autoebaluazioa (Ikus I. Eranskina) Euskal errealitateari egokitutako Benchmarkaren bidez.*  
Hasieran jasotako adierazle bakoitzari dagozkion balioak hartzen dira kontuan (0 eta 4 artean). Printzipio bakoitzaren batez besteko puntuazioa adierazle guztien balioen batura da, adierazle-kopuruaz zatituta. Batez bestekoa 0 eta 1,99 artekoa baldin bada, ez da printzipioa onartzen, eta Zigilua ez da ematen. Emaitza handiagoa baldin bada, hurrengo urratserako hartuko da kontuan. Printzipio bakoitzeko puntuazioak (2 puntu edo gehiago) batu eta 12 zatitan banatzen dira. Emaitza 3 edo gehiago baldin bada, zigilua ematen da. Emaitza 3tik beherakoa baldin bada, zigilua ez da ematen.
- b) *Herritarrei egindako inkestak (Ikus II. Eranskina). Emaitzak autoebaluazioarekin kontrastatzea du helburutzat, eta ez dio eragiten Ziguilaren emakidari.*
- c) *Kargudun nagusiei egindako inkestak (Ikus III. Eranskina). Emaitzak autoebaluazioarekin kontrastatzea du helburutzat, eta ez dio eragiten Ziguilaren emakidari.*

Udal bakoitzean egin den egiaztatze-lanak honako fase hauek ditu:

- Euskarriaren egiaztapena eta erakundeek lortutako puntuazioen ebidentzia.
- Hautetsiei eta interes-taldeein egindako inkestetan lortutako emaitzen arrazoizkotasunaren kontrastea.
- Hainbat adierazle eta printzipiotan emandako erantzunen arteko korrelazioaren berrikuspena.
- Udalek adierazle bakoitzerako jasotako ebidentziak eta lortutako puntuazioak erkatzea.


## 2. EMAITZAK

Ondorengo taulan **VITORIA-GASTEIZKO UDALAK** lortutako emaitzak laburtu eta konparatzen dira:

	Benchmark	Inkestak	
		Interes-taldeak	Hautetsiak
1. Hauteskundeak eta bidezko ordezkapena eta parte-hartzea	4,00	2,23	3,61
2. Erreakzionatzeko gaitasuna	3,50	2,55	2,52
3. Efizientzia eta efikazia	3,67	2,45	3,42
4. Irekitasuna eta gardentasuna	3,60	2,67	2,90
5. Zuzenbide Estatua	3,00	2,38	2,90
6. Jokabide etiko bat	3,33	2,44	2,95
7. Eskumenak eta gaitasunak	3,12	2,88	2,60
8. Berrikuntza eta espiritu zabaltasuna aldaketaren aurrean	3,75	2,64	3,04
9. Iraunkortasuna eta epe luzerako orientabidea	3,78	2,24	2,41
10. Kudeaketa finantzario osasuntsua	3,71	2,45	2,61
11. Giza eskubideak, aniztasun kulturala eta kohesio soziala	4,00	2,97	3,38
12. Kontuak emateko betebeharra	3,71	2,29	3,10
<b>BATEZBESTEKOAK</b>	<b>3,60</b>	<b>2,52</b>	<b>2,96</b>


## 2.1. GAINERAKO PARTE-HARTZAILEEKIKO KONPARAZIOZKO EMAITZAK

Ondoko grafikoan **VITORIA-GASTEIZKO UDALAK** proiektuan parte hartzen duten gainerakoekin alderatuta lortu duen posizioa adierazten da eta entitate guztiek lortutako batez besteko orokorrearekin konparatzen da.



El resultado de la autoevaluación sitúa al Ayuntamiento como el segundo mejor puntuado de esta edición, obteniendo una calificación global de 3,60 puntos, sólo 0,07 puntos menos que el Ayuntamiento mejor puntuado de la edición, que tiene un 3,67.

Autoebaluazioaren emaitzaren arabera, edizio honetan bigarren puntuaziorik onena lortu duen Udala da Bilbo. 3,60 puntuko kalifikazio orokorra lortu du, hurrengo Udalak baino 0,07 puntu gutxiago (3,67 puntu lortu dituen).




Vitoria-Gasteizek 2 puntu baino gehiago lortu ditu printzipio guztietan Gainera, 5 printzipiotan puntuazio altuena lortu du; horietako bitan, beste udal batekin berdindu da.

## 2.2. EMAITZEN ETA INKESTEN KONTRASTEAK

Herritarrei egindako inkestan puntuazioak eta kargu publikoei egindako inkestan puntuazioak autoebaluzioaren puntuazioak baino txikiagoak dira.

Benchmark	Biztanleria	Hautetsiak
3,60	2,52	2,96

Hona hemen Udalak lortutako balorazioen banaketa, printzipioen arabera; gainera, egindako inkestan emaitzekin alderatzen da:



Autoebaluzioan **1. printzipioa (Hauteskundeak eta bidezko ordezkapena eta parte-hartzea)** da, 11. printzipioarekin batera, puntuaziorik handiena lortzen duena, eta hori bat dator hautetsien inkestan. Hala ere, herritarrei egindako inkestan, 1. printzipioak jaso du puntuaziorik txarrena.

**11. printzipioa (Giza eskubideak, aniztasun kulturala eta kohesio soziala)** da autoebaluzioan eta herritarren inkestan puntuaziorik onena lortu duena. Bestalde, hautetsientzako inkestak bigarren puntuaziorik onena ematen dio.

Azkenik, esan behar da, autoebaluzioan puntuaziorik txarrena **5. printzipioarentzat (Zuzenbide Estatua)** izan arren, hautetsiek **9. printzipioa (Iraunkortasuna eta epe luzerako orientatibidea)** puntuatzen dutela puntuaziorik txarrenarekin, eta herritarrek bigarren puntuazio okerrenarekin.

### 3. HOBEKUNTZA PLANA

Autoebaluazioari esker, norberaren ezagutzan sakondu dezakegu, bereizgarri ditugun indargune eta ahulezien multzoa identifikatuz.

Hona hemen hobetzeko proposamenak, sakontzeko asmorik gabe. Hobetzeko proposamen horiek lagungarriak izango dira **VITORIA-GASTEIZKO UDALARENTZAT**, aztergai dugun arloan etengabeko hobekuntza sustatzeko, Europako Kontseiluaren (CoE) Toki mailako Berrikuntzarako eta Gobernantza Egokirako Estrategiak aldarrikatzen duen bezala.

- **Esparru orotako hirugarren adituengandik aparteko auditoriak** egitea gomendatzen da, besteak beste, kalitatea, DBLO, legezketasuna betetzea, diru-laguntzak, hitzarmenak eta finantza-ikuskapenak. Izan ere, baldintzatuta ez dagoen eta irtenbide objektibo eta inpartzialak ematen dituen norbaiten arazo eta beharren informazio objektiboa eta ikuspegi zabalagoa eta globalagoa izateko aukera ematen du. Gainera, emaitzak argitaratzea gardentasun-ariketa bat da herritarrekin.
- Garrantzitsua da Udalak egiten dituen **plangintza guztietan betetze-ebaluazioak** egitea.
- Udalak eskaintzen dituen **zerbitzu guztiak islatuko dituen Gutun bat egitea**, Gutunetik bertatik horietako bakoitzera berehala sartu ahal izateko informazio garrantzitsu guztiarekin.
- Web orrietan aldaketak egitea gomendatzen da, **erabilgarritasuna** hobetzeko, eskura dagoen informazio gehiena ez baita erraza aurkitzen.
- **Erabaki judizialak** Udalaren web orrian argitaratzea (datuak babesteko indarrean dagoen araudia bete ondoren), ahal dela, kategorien arabera egituratuta, errazago aurkitu ahal izateko, eta eragindako eremu edo jarduera hobetzeko planak ezartzea.
- Kontratuaren arduradunak **kontratuaren klausula bereziak betetzen dituen jakiteko** jarraipenari laguntzeko, udalek Jarraipen Batzorde bat eratu ahal izango dute, kontratua betetzen dela bermatu eta errazteko, horri buruzko aholkuak emateko, zailtasunak konpontzeko eta etengabeko hobekuntzak proposatzeko eta eguneratzeko.
- **Ondasun eta zerbitzuen erosketen espedienteetan**, gomendatzen dugu, lizitatzailerei erantzukizunpeko adierazpen bat osatzeko eskatzen zaien bezala, esleipen-prozeduran parte hartzen dutenak ere espedienteetan sartzea eta prozeduran inpartzialtasuna jasota uztea.
- Parte hartzen duen udal batek ere ez du **ustelkeria-arriskuen mapa**, horrelako gertaera bat gertatzeko probabilitatea gutxitzeko eta horren eragina murrizteko beharrezko tresna, eta, beraz, horretan lan egitea gomendatzen da.
- **Hartutako ebazpenei buruzko txostenak** sistematikoki eta aldizka argitaratzea gomendatzen da.
- Ordezkeri publikoentzako eta funtzionarioentzako **izapideen gidak eta eskuliburuak** prestatu eta argitaratzea.
- **Tramiteen gidak eta eskuliburuak** prestatu eta argitaratzea, herritarrek erreklamazio eta errekurtsio prozeduretarako sarbidea izan dezaten.
- **Erosketa Publiko Berritzaileko** prozesuak gauzatzeak irtenbide berritzaileak lortzea ahalbidetzen du, bestela lortuko ez lirartekeen onurak ekarriko dituztenak.



#### 4. ELOGE VS. ODS

Vitoria-Gasteizeko **1. Printzipioan (Hauteskundeak eta bidezko ordezkapena eta parte-hartzea)** lortu du puntuaziorik onena. Horrek esan nahi du udalak ahaleginak egin dituela herritarrak jarduera publikoaren erdian jartzeko. Horrela, bada, Gasteizko Udalak aukera eman die herritarrei erabakiak hartzeko argi definitutako eruedetan oinarrituta parte hartzeko, bai gizonei bai emakumeei. Iritzi guztiak, pertsona pobreenak eta ahulenak berdin hartu dira kontuan, eta gutxiengoaren eskubideak eta bidezko interesak errespetatu dira.

Horrenbestez, esan daiteke **Gasteizko Udalak** bere kudeaketan sartzan duela **16. GJHko (BAKEA, JUSTIZIA ETA ERAKUNDE SENDOAK) 7. xedea**, maila guztietan, herritarren beharrei erantzuten dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta adierazgarriak hartzea jasotzen duena.

Era berean, parte-hartzearekin lotutako politiketan **10. GJHa (DESBERFINTASUNAK MURRIZTEA) eta 5. GJHa (GENERO BERDINTASUNA)** sartzan ditu. Horien barruan, hurrenez hurren, 2. xedea pertsona guztien gizarteratze soziala, ekonomikoa eta politikoa sustatzeari buruzkoa da, haien adina, sexua, ezgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe, bai eta emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra sustatzeari buruz hitz egiten du eta 5. xedea, berriz, bizitza politikoan, ekonomikoan eta publikoan erabakigarriak diren maila guztietako lidergo-aukeren berdintasunari buruzkoa da.

Bestalde, Vitoria-Gasteizek autoebaluazioan ondoen baloratutako beste printzipioa **11. printzipioa da (Giza eskubideak, kultura-aniztasuna eta gizarte-kohesioa)**. Horrek esan nahi du ahaleginak egiten direla tokiko biztanleria osatzen duten guztiak harekin identifika daitezten eta baztertuta senti ez daitezten, sektore behartsuen integrazioa eta gizarte-kohesioa sustatzen direla eta diskriminazioari aurre egiten zaiola.

11. printzipio horrek lotura estua du zenbait GJHrekin. Oso modu zuzenean, **10. GJHrekin (DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA)** du zerikusia. GJH horren 2. xedeak, pertsona guztien gizarteratzea, ekonomikoa eta politikoa bultzatu eta sustatzearen alde egiten du, haien adina, sexua, ezgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa edo beste edozein baldintza alde batera utzita, eta 3. xedeak, berriz, aukera-berdintasuna bermatu eta emaitza-desberdintasun politiko horiek murriztearen alde egiten du, baita bereizkeria ere.

Gainera, 11. printzipioak lotura estua du **5. GJHrekin (GENERO-BERDINTASUNA)**, zeinak 1. xedean ezartzen baitu beharrezkoa dela mundu osoko emakume eta neska guztien aurkako bereizkeria-mota guztiak amaitzea.

Azkenik, **1. GJH (POBREZIAREN AMAIERA)**, 3., 4. eta 5. helburuen bidez, honako hau ere erlazionatzen da harekin: guztientzako gizarte-babeserako sistema eta neurri egokiak hartzea, ahulenak barne; gizon eta emakume guztiek, bereziki pobreek eta ahulenek, baliabide ekonomikoetarako eskubide berberak dituztela bermatzea; oinarrizko zerbitzuak eskuratzea eta erresilientzia sustatzea.

## 5. KONLUSIOA

**VITORIA-GASTEIZKO UDALAK** autoebaluazioa **3,60ko puntuazioarekin** gainditu duenez eta bere **printzipio guztietan 2 puntu edo gehiago** dituenez, 2021 Gobernantzaren Arloko Bikaintasunaren Europako Zigilua jasotzeko hautagai gisa proposatzen dugu.